

Erf.: Erabagia zuzentzea Landabasoko desjabetzapena  
Tx. zk.: 17/

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

## **TXOSTENA**

### **Planteatutako gaia**

Landabaso Industrialdeko lurzatiaren desjabetzapenaren inguruko 2016ko abenduaren 1eko Osoko Bilkurako erabagia zuzentzea.

### **Nork eskatu dauen txostena**

Ofizioz.

### **Argudio juridikoak**

#### **a) Aurrekariak**

Bakarra: 2016ko abenduaren 1eko Osoko Bilkurean, Landabaso Industrialdeko lurzatiaren desjabetzapen espedientea handitzea eta Bermeoko 3. Poligonoko, 297 luzatiko 648,46 m2 eskuratzeko desjabetzapen proiektua hasikera baten onestea.

#### **b) Oinarriak**

Bakarra: Kontutan eukita desjabetu beharreko luzatiaren azalera 794,46 m2koa dala, hartutako erabagiaren akatsa zuzendu beharra dago, eta Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra arautzen dauan 39/2015 Legeak, bere 109. Artikuluan honakoa dino: "(...)3 Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momentos, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos".

Hori guztia dala eta, aitaturako akatsa zuzentzea proposatzen da.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2017ko maiatzaren 26an.

Karmele Muñoa Arrigain  
Behin-behineko Idazkaria

